

8 galdera eta erantzun kudeaketa-planei buruz

"Kudeaketa plan bat egitea beti dago ondo, nahiz eta jabe txiki bat izan; gauza baliagarria da norberarentzat", esan du Jone Maioz GEBEko teknikariak, eta, gainera, lagungarria izan dakiguke etorkizunean Foru Aldundiaren basogintzako laguntzak eskuratzeko. Zenbat balio du plan bat egiteak? Behartuta nago? Hona hemen erantzunak.

Zer da? Kudeaketa plan batean azalerari buruzko informazio guztia jasotzen da, bai datu administratiboak, bai lurzoruari, klimari, plubiometriari eta esposizioari buruzko informazioa. "Guztiak baitu eragina espezie bat edo bestea aukeratzeko orduan", Maiozen esanetan. Gure lursailei eragiten dieten arauak ere asko dira (monumentu megalitikoak badaude, adibidez, edo eremu babestuan bagaude), eta guztiak kudeaketa-plan batean islatzen dira, jakin dezagun zer hartu behar dugun kontuan gure lursailen egin nahi dugun edozein jarduketatan. Kudeaketa-plan batek ibilbide-orri bat eskaintzen du, partzelaz partzela, nola datorren eta zuhaitzek zer adin duten.

Zer datu dakarzkiz? Ematen duen informazioa oso zabala da: gure landare mota, azalera, lursail bakoitzean zer lan egin behar ditugun eta lursail bakoitzaren historia eta lan horiek zein unetan egin behar ditugun zehazten da. Gero, produkzioaren ikuspegitik, kalkulu batzuk egiten dira zuhaitz-masa horiek zer ekarriko diguten jakiteko. Azterketa bat egiten da, jabeak uneoro jakin dezan lursail horretatik zer etekin lor dezakeen.

"Oso praktikoa gertzatzen zaio baso-jabeari esku artean zer duen jakiteko eta zer egin behar duen eta zein unetan jakiteko", adierazi du Maiozek.

Nola egiten da azterketa hori? Zuhaitz-masaren argazki hori egiteko, jabeak finkaren historia azaltzen dio teknikariari, ezagutzen badu, baina tokian bertan ere lortzen dira datuak, laginketa batekin, eta estimazioak egiten dira produkzioaren ikuspegitik: altuera eta bolumena neurtzen dira, zuhaitzak non dauden zehazten da, zer adin duten eta zenbat haziko diren mozketaren unera arte, eta zenbat entresaka beharko diren ordura arte, eta horietako bakoitzak zein etekin emango digun.

Zenbat denborarako? Kudeaketa-planek 20 urteko epea dute, eta epe horretan egin beharreko jarduera guztiak jasotzen dituzte.

Zenbat balio du? Bi kudeaketa-plan mota daude: konpletoena, 3.000 euroraino joan daiteke, hektarea-kopuruaren arabera. Eta beste kudeaketa-plan simple bat ere badago, informazio dezente ematen diguna, jabe txikiagoentzat erabilgarria izan daitekeena. Bigarren honek 300 edo 400 euroko kostua izan dezake, azaleraren arabera.

Zein kasutan egin behar dut bai a la bai? Kudeaketa-plan bat egin behar duzu, baldin eta 20 hektarea baino gehiagoko azalera jarraitu batean, inongo aktuaziorik egin behar baduzu; edo, guztira, 35 hektarea baino gehiago, leku desberdinetan bada ere.

Beste abantailarik badu? Kudeaketa-plan batek birlanaketarako laguntza publikoak jasotzeko orduan ere lagun diezaguke. Norgehiagoka dagoen kasuetan, adidibidez. Hau da, emango diren laguntzak eskabideak baino txikiagoak badira, norgehiagoka ematen da. Dirua nori bideratu eta nori ez aukeratu behar bada, kudeaketa-plan bat izateak 25 puntuko abantaila eskaintzen du norgehiagoka horretan. Gehien puntuatzen duena da. Eta, gainera, laguntzen zenbateko osoa % 10 handitzen du kudeaketa plana edukitzeak.

Bost hektarea besterik ez badut, zertarako nahi dut? Kudeaketa-plan bat egitera animatzen diren jabe txikiak gutxi badira ere, plan sinplea aukera ona da haientzat. "Nik beti gomendatuko nuke", esan du Jone Maiozek. "Beti dago ondo plan bat izatea. Zure azalera maneiatu behar duzu, dokumentu gorde batean daukazu, datu garrantzitsuenekin eta egin beharreko ekintzen plangintzarekin eta zein urtetan. Plan sinple batean ez dago eskaini ahal dizun errendimenduaren estimaziorik, baina datu asko eskaintzen ditu eta edozein jaberentzat gomendatzen da ", gaineratu du GEBEko adituak.

GIPUZKOAKO
BASO ELKARTEA

ASOCIACIÓN DE PROPIETARIOS
FORESTALES DE GIPUZKOA